



## Gure seme-alabak sare sozialetan Gurasoek zer dakigu horretaz?

### Zer dira gizarte-sareak?

Internetek eskaintzen dituen espazioak dira, non hainbat pertsona erregistra daitezkeen. Harremanak mantendu eta berriak egin, laguntasuna, interesak, zaletasunak, argazkiak, ekimenak edota iritziak partekatu; horiexek gizarte-sareen helburuetako batzuk.

### Zergatik dira horren erakargarriak gaztetxoentzat?

#### Hainbat arrazoi daude, besteak beste:

- Gizarte-sareei esker gaztetxoak etengabeko harremanean daude (kontuan izan behar da berdinaren arteko taldeek zer-nolako garrantzia duten adin jakin batzuetan), edozein unetan eta inolako araurik jarraitu beharrik gabe. Edozein leku eta unetan konektu daiteke eta, gero eta gehiago telefono eramangarriaren bidez.
- Gaztetxoek parte hartu egiten dute eta berezko edukia sortzen dute: ekitaldiak sortzen dituzte, oharrik uzten dituzte beste pertsona batzuen guneetan, argazkiak edota bideoak igotzen dituzte, etab.
- Mezuak, bideoak edota argazkiak parteka ditzakete. Beren gizarte-bizitza antolatzen dute.
- Interesgarri zaien talde batean parte hartu edo kausa baten alde egin dezakete.
- Beste pertsona batzuekin online moduan joka dezakete.

Mundu hori ongi ezagutzen dutela sentitzen dute eta haren funtzionamendua kontrolpean dutela. Horrek interesa areagotzen die.

### Zergatik izutzen gaituzte hainbeste gurasoek?

Hedabideetatik, gehienetan, gaiari buruzko informazio negatiboa iritsi ohi da. Gainera, pertsona heldu askok ez dituzte gizarte-sareak ezagutzen eta gaztetxoek arintasun askoz erabiltzen dituztela ikusi ohi dute. Horregatik, gurasoek begirada izukorrez ikusi ohi dituzte espazio horiek.

### Zein da gurasoentzat ariapuntua?

Lehenengo gauza, garrantzitsuena, beldur hori kendu eta gizarte-sareak "barrutik" ezagutzeko ahalegina egitea da; modu horretan, espazio horien erabilerak, abantailak eta arriskuak ikusteko. Aurreiritziak alde batera uzteko ahalegina egin behar da, gehienetan negatiboak izaten baitira.



### Gizarte-sareetako zenbait arrisku:

- **Grooming.** Internet bide sexu-jazarpenaren erreferentzia egitea. Pertsona heldu bat nerabeek erabili ohi duten espazio batean sartzen da. Haien adinekoa bailitzan jokatzeko du eta haiekin komunikatzen da, informazioa partekatzen du eta gauzak kontatzen ditu. Modu horretan, adinez txikikoen konfiantza baitaratzen du. Ondoren, xantaia, larderia eta mehatxua erabiliko ditu.
- **Ciberbullying (Ciber-jazarpena).** Internet bidez egiten den eskola-jazarpena.
- **Informazio pertsonala erakustea.** Adinez txikikoen izena, adina, telefono-zenbakia edota argazkiak erakutsi ditzakete pribatutasunaren kontrolrik gabe. Hala, datu horiek pertsona ezezagunek ikusi ditzakete, baimenik gabe erabili ditzakete, etab.
- **Pribatutasunaren aurkako mehatxua.** Adinez txikikoen gizarte-sarearen batean duen kontua lapurtzea, identitate-ordezpena, etab.
- **Material desagokia erakustea.** Sarean informazio eta eduki andana dago. Horietako zenbait desagokiak dira adinez txikikoen artean eta haietara sar/iris daitezke inolako kontrolrik gabe.
- **Informazio pribatua argitaratzea:** Gizarte-sareetan segurtasun-arrazoiak direla medio desagokiak izan daitezkeen edukiak argitaratu daitezke.

### Eta...zenbait aholku?

Pentsa genezake KONTOLAREN gaineko zenbait irizpide ematea nahikoa litzatekeela. Irizpide horiek garrantzitsuak eta beharrezkoak dira. Horien bidez gurasoek espazio horien erabilera kudeatu ahal izango dute eta zenbait arrisku murriztu. Baina ezinbestekoa da funtsezkoa den zerbait aintzat hartzea. Gaztetxoak berez kontrola daitezela lortzeko ez da aski helduek egin dezaketen kanpotiko kontrol horrekin. Horrez gain, garrantzitsua izango da berezko kontrola bereganatzera bideratutako HEZIKETA ematea.

**Kontrola.** Gurasoek erabakitzen dute seme-alabek noiz erabiliko dituzten teknologia horiek.

- Irakurri sareetako erabilera-baldintzak eta pribatutasun-politikak.
- Ordenagailua erabili ahal izateko pasahitza.
- "Espazio publiko" bateko ordenagailua.
- Guraso eta seme-alaben artean adostutako arauak (erabilera-kontratuak)
- Kontrol-softwarea: gurasoen kontrola, edukien iragaztea, etab.

#### Heziketa.

- Interneten aurki daitezkeen arriskuak. Erabilera seguru eta arduratsua.
- Komunikazioa
- Norberarekiko eta besteekiko begirunea.
- Norberaren eta bestearen irudiarrekiko begirunea.
- Gizarte-bizitzaren eta intimitatearen arteko mugak.
- Portaera bizitza errealean eta sarean.
- Identitate erreala eta identitate birtuala.
- Laguntasuna. Lagunak mundu errealean eta mundu birtualean.
- Sarearen legezotasuna.
- Erabakiak hartzea.

Garrantzitsua da gure seme-alabekin gai horien inguruko lanketa egitea. Ez da hainbestekoa bizitza errealean eta birtualean arteko aldea. Dena den, egia da gurasoek, zenbaitetan, beste ikuspegi batzuk ditugula. Ezinbestekoa da bi errealitateetan jokabide egokia izan behar dutela ikusaraztea.